



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO ZERRENDAK

### 73. buletina (2011ko apirilaren 7koa)

---

#### Laburpena:

- **JARDUERAK KONTROLATZEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIEN ZERRENDA SORTZEA (INGURUMENA) LC02-2011**
- **LANDAREEN INBENTARIOKO TEKNIKARIAK ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO ZERRENDA SORTZEA LC03-2011.**
- **KONTRATAZIO ZERRENDEN KUDEAKETARI BURUZKO BERRIAK**
  - Hobekuntzak web aplikazioan. Kontratu simulagailua
  - Hobekuntzak aplikazioan. Zerrenden osaerarako sarbidea
  - Ezintasunak dituzten pertsonen kontratazioa hobetzeko kanpaina

---

### **JARDUERAK KONTROLATZEKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIEN ZERRENDA SORTZEA (INGURUMENA) LC02-2011**

#### **Betebeharrak:**

- Titulazioa: Ingeniaritza tekniko, honako espezialitateetako batean: mekanika, elektrizitatea, elektronika edo telekomunikazioak
- B gidabaimena.

Udalaren web orrian ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) argitaratu dira deialdiaren oinarriak. **Eskabideak aurkezteko azken eguna: 2011ko apirilaren 26a (barne).**

#### Argibideak eta eskabideak:

- Telefono bidezko argibideak: 010 eta -945 161100
- Abetxuku, Ariznabarra, Aldabe, Arriaga, Hegoalde, Ibaiondo, Iparralde Judimendi, Lakua, Pilar, Olagibel 2 eta Europa Jauregiko gizarte etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Baita Abetxukuko eta Mendizorrotzeko kiroldegietan ere.
- Internet: [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)
  - \* Argibideak: (bilatzailea: **LC02-2011**)
  - \* Eskabidea: (Bilatzailea: **LC02-2011**, Udalaren enplegu eskaintza- Hautatze prozesua).

- **LANDAREEN INBENTARIOKO TEKNIKARIAK ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO ZERRENDA SORTZEA LC03-2011.**

**Betebeharrak:**

- Titulazioa: Baliabide natural eta paisajistikoak kudeatu eta antolatzeke goi zikloa
- B gidabaimena.

Udalaren web orrian ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) argitaratu dira deialdiaren oinarriak. **Eskabideak aurkezteko azken eguna: 2011ko apirilaren 26a (barne).**

Argibideak eta eskabideak:

- Telefono bidezko argibideak: 010 eta -945 161100
- Abetxuku, Ariznabarra, Aldabe, Arriaga, Hegoalde, Ibaiondo, Iparralde Judimendi, Lakua, Pilar, Olagibel 2 eta Europa Jauregiko gizarte etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Baita Abetxukuko eta Mendizorrotzeko kiroldegietan ere.
- Internet: [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org).
  - \* Argibideak: (bilatzailea: **LC03-2011**)
  - \* Eskabidea: (Bilatzailea: **LC03-2011**, Udalaren enplegu eskaintza- Hautatze prozesua).

- **KONTRATAZIO ZERRENDEN KUDEAKETARI BURUZKO BERRIAK**

- **Hobekuntzak web aplikazioan. Kontratu simulagailua**

Hainbat aldaketa egin da kontratazio zerrendetako parte hartzaileek beren baldintzak kudeatzeko den web aplikazioan Hain zuzen ere, simulagailuaren bidez kontratu mota bat eskuratzeko zein egoeratan gauden ezagutzeko aukera ematen du. Iragazki aukera berriak ditu: lanposturako gidabaimena behar den (bat ere ez, B edo C), edo ezintasun aitortua duten pertsonen lehentasuna duten kontratatzeke.

- **Hobekuntzak aplikazioan. Zerrenden osaerarako sarbidea**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gure zerrendetako partaide talde batek egindako eskaera bati erantzuteke egindako txostenetik eratorri da beste berrikuntza garrantzitsu bat. Aldeko txosten hau dela eta, gure zerrenda berebean dauden beste kideen inguruko kontsulta ere egin ahalko da aplikaziotik. Edonola ere, funtsezkoa da hauxe jakitea: informazio hori ez da erreproduzitu edo sistematik kanpo gorde behar.

- **Ezintasunak dituzten pertsonen kontratazioa hobetzeko kanpaina.**

Ezintasunen bat aitortuta duten udal langileek Hautaketa Atalean egoera horren berri emateko kanpaina bat burutzen ari gara, egoki denean horien ordezkapenak ezintasun aitortua duten zerrendako kideek egitea bultzatze aldera. Hori guztia, kontratazio zerrendei buruzko araudiaren 7. artikuluan jasotakoa betez.

- Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00).
- Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

[seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org](mailto:seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org)  
[seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org](mailto:seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org)

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA  
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**